

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN,
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN ETA
BUSTURIALDEKO UR-
PARTZUERGOAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA, URDAIBAI
BIOSFERA-ERRESERBAKO
HORNIDURAREN LURRALDE-
EKINTZAKO PLANA LANTZEKO ETA
IZAPIDETZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, LA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL
CONSORCIO DE AGUAS DE
BUSTURIALDEA PARA LA ELABORACIÓN
Y TRAMITACIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN
TERRITORIAL DE ABASTECIMIENTO DE LA
RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI.



Gasteiz 2014ko irailaren 24a

En Vitoria, a 24 de septiembre de 2014.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

REUNIDOS:

Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusia, Iosu Madariaga Garamendi jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Foru Diputatua eta Iratxe Arriola Alzola andrea, Busturialdeko Ur Partzuergoko Presidentea.

Don Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua, Don Iosu Madariaga Garamendi, Diputado Foral de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia y Doña Iratxe Arriola Alzola, Presidenta del Consorcio de Aguas de Busturialdea.

ESKU HARTU DUTE:

INTERVIENEN:

Horietako lehenak Uraren Euskal Agentziaren Zuzendari Nagusi den heinean, eta horren estatutuen 7.2.g)

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la misma.

artikuluak ematen dion ahalmenarekin bat.

Bigarrenak, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Foru Diputatu den heinean, eta horren legezko ordezkari gisa, horretarako baimena eman baitzion Gobernu Kontseiluak.

El segundo, en calidad de Diputado del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia, y asumiendo la representación legal del mismo, habiendo sido autorizado a tal efecto por el Consejo de Gobierno.

Hirugarrenak, Busturialdeko Ur Partzuergoaren Presidente den heinean, eta hari dagozkion ahalmenekin bat; horretarako baimena eman zion Batzorde Betearazleak.

La tercera, en su condición de Presidenta del Consorcio de Aguas de Busturialdea, y en virtud de las atribuciones que le son propias, habiendo sido autorizada a tal efecto por la Comisión Ejecutiva.

Alderdiek **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau egiteko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, ondorio horietarako, honako hau

Los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, y a tal efecto;

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN:

LEHENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua 11. eta 33. paragrafoekin bat, autonomia-erkidegoari dagokio, haren lurralde-eremuan, ur-aprobetxamenduen gaineko eskumen osoa, urak Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen badira osoki, bai eta obra publikoen gaineko eskumena ere, horiek ez badira

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés



Estatuarentzat interes orokorrekoztat jotzen legez, edo beste autonomia-erkidego batzuetan eragiten ez badute.

297/1994 Dekretuaren, uztailaren 12koaren, Eskualdaketen Askotariko Batzordearen 1994ko maiatzaren 31ko Akordioa, uren baliabide eta ustiapen alorrean egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomi Elkarteari egozteari buruzkoa, onartzen duenaren bidez, autonomia-erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, beste batzuen artean, toki-korporazioei laguntza emateko eginkizunak eta bitartekoak, autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan gauzatuko diren obra hidraulikoak gauzatze aldera, lan horiek haren interesekoak badira, ez badiote beste autonomia-erkidego bati eragiten eta estatuaren interes orokorrekoztat jotzen ez badira legez.

BIGARRENA.- 1/2006 Legeak, ekainaren 23koak, Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; horren xedea da uraren politika gauzatzea EAEn, eta, beste eginkizun batzuen artean, estatuko administrazioak eskualdatutako, 

general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

SEGUNDO.- Que, por la Ley 1/2006, de 23 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, 

eskuordetutako edo agindutako eginkizunak gauzatzea dagokio.

delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

HIRUGARRENA.- Beste alde batetik, ur-hornidurako eta -saneamenduko zerbitzuak udalen eskumenekoak dira (eskumen propioak), eta, era berean, foru-aldundiari dagokio Bizkaian zerbitzu horiek osoki eta behar bezala ematen direla bermatzea.

TERCERO.- Que por otra parte, los servicios de abastecimiento y saneamiento de aguas son competencias municipales (competencias propias) y corresponde igualmente a la Excm. Diputación Foral asegurar la prestación integral y adecuada en el Territorio Histórico de Bizkaia de estos servicios.

LAUGARRENA.- Busturialdeko Ur Partzuergoa haren eskumeneko lurralde-eremuan uraren zerbitzu osoa kudeatzeko sortu zen, haren estatutuen 1. artikuluan jasotzen den eran.

CUARTO.- Que, el Consorcio de Aguas de Busturialdea se crea para la gestión conjunta del servicio integral del agua en el área territorial de su competencia, según figura en el artículo 1 de sus Estatutos.

Halaber, Busturialdeko Ur Partzuergoak nortasun eta ahalmen juridikoa du haren estatutuen 6. artikuluan adierazten diren helburuak betetzeko, honako arau hauekin bat: 3/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzeari buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta 781/1985 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren

Igualmente, el Consorcio de Aguas de Busturialdea, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 3/1995 de 30 de marzo reguladora de las Entidades de Ámbito Supramunicipal de Bizkaia, la Ley 7/1985 de 2 de abril y el Real Decreto Legislativo 781/1985, de 128 de abril, tiene personalidad y capacidad jurídica para el cumplimiento de los fines que se identifican en el artículo 6 de sus Estatutos.



Consorcio de Aguas de Busturialdea

BOSGARRENA.- Agiri hau izenpetzen duten administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, denbora luzez lan egin dute erreserbaren ingurumen-balioekin bateragarria izango den ur-hornidura bat bermatzeko aukeren inguruan.

SEIGARRENA.- Aurreikusitako jardueren artean, Urdaibai Biosfera Erreserbako Horniduraren Lurralde Ekintzako aginduzko Plana landu nahi dute orain, Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidarian ezarritako xedapenak beteko dituen, eta ur-hornidura bermatzeko eta emari ekologikoak mantentzeko aukera emango duten lanak jasoko dituen.

ZAZPIGARRENA.- Ildo horretatik, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak (ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretu bidez onartua) ezartzen ditu 2000/60/CE Zuzentarautik eratorritako plangintza hidrologikoko helburu eta irizpide berriak, kontuan

hartuta, beste alderdi batzuen artean, horniduraren berme egokiak bateragarria izan behar duela

QUINTO.- Que, las Administraciones abajo firmantes, en el ámbito de sus respectivas competencias, vienen trabajando desde hace tiempo en el planteamiento de diversas alternativas que permitan una adecuada garantía de suministro de agua compatible con los valores ambientales de la Reserva.

SEXTO.- Que, dentro de las actuaciones previstas, se pretende elaborar ahora el preceptivo Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai que cumpla con las determinaciones del Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, en el que se recojan las obras que permitan la garantía de suministro de agua y el mantenimiento de caudales ecológicos.

SÉPTIMO.- Que, en este sentido, el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, establece los nuevos objetivos y criterios de la planificación hidrológica que emanan de la Directiva 2000/60/CE, basados, entre otros, en la necesaria compatibilización de una adecuada garantía de abastecimiento con el mantenimiento de

ingurumen-emarien araubideak eta ur-masen egoera ona mantentzearekin.

los regímenes de caudales ambientales y el buen estado de las masas de agua.

ZORTZIGARRENA.- Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidariak haren 12. artikuluan xedatzen du lurralde-ekintzako planen bidez garatu behar dela berau, eta, hornidurari dagokionean, ezinbestekoa da horrelako planak lantzea behar diren hornidurarako azpiegiturak gauzatu ahal izateko.

BEDERATZIGARRENA.- Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidariaren 44. artikulua ezartzen du dagokion gaiaren arabera eskumena duten erakundeei dagokiela hori garatzeko lurralde-ekintzako planak lantzea eta behin-behinean eta behin betiko onartzea, legeak ezarritako eskumenak kontuan hartuta.

HAMARGARRENA.- Busturialdeko Ur Partzuergoari estatutuen bidez agindu zaio kudea dezala partzuergoko kide diren udalerrietako ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzu osoa, eta,

OCTAVO.- Que, el Plan Rector de Uso y Gestión de la reserva de Urdaibai señala en su artículo 12 que, el mismo será desarrollado por Planes de Acción Territorial y en lo que respecta al abastecimiento, su elaboración resulta indispensable a fin de permitir la ejecución de las infraestructuras de abastecimiento necesarias.

NOVENO.- Que, el artículo 44 del Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai establece que corresponde a los organismos competentes por razón de la materia de que se trate, la elaboración, aprobación inicial y definitiva de los planes de acción territorial de desarrollo del mismo, teniendo en cuenta las competencias legalmente establecidas.

DÉCIMO.- Que, el Consorcio de aguas de Busturialdea tiene encomendada estatutariamente la gestión integral del servicio de abastecimiento de aguas y saneamiento de las poblaciones



bereziki, haren estatutuen 8. artikuluan xedatzen da partzuergoaren eskumen espezifikoa dela partzuergoko kide diren udalerrietako ur-hornidurako eta saneamenduko beharrak aztertzea, bai eta behar horiek asetzeko behar diren plan eta proiektu guztiak lantzea ere. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoak, Uraren Euskal Agentziaren bidez, erkidegoko arroen plangintza hidrologikoaren alorrean dituen eskumen esklusiboen kaltetan izan gabe.

HAMAIKAGARRENA.- Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana idazteak inbertsio handia eskatzen duenez, Busturialdeko Ur Partzuergoak laguntza ekonomikoa eskatu die Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Bizkaiko Foru Aldundiari.

HAMABIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren helburuetako bat da Bizkaian garapen iraunkorra sustatu eta uraren kudeaketa egoki bat bermatzea.

consorciadas y en particular, el artículo 8 de sus estatutos fijan como una competencia específica del mismo, el estudio de las necesidades relativas al abastecimiento de aguas y saneamiento de los municipios consorciados, así como la elaboración de cuantos planes y proyectos se estimen oportunos para satisfacer dichas necesidades. Todo ello sin perjuicio de las competencias exclusivas que ejerce la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de planificación hidrológica en las cuencas intracomunitarias, a través de la Agencia Vasca del Agua.

UNDÉCIMO.- Que, a la vista del importante esfuerzo inversor que supone abordar la redacción del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento, el Consorcio de Aguas de Busturialdea ha solicitado auxilio económico de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia.

DUODÉCIMO.- Que, entre los objetivos del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia está el de fomentar el desarrollo sostenible y asegurar una buena gestión del agua en Bizkaia.



Busturialdeko Ur Partzuergoak La Estrategia para el Desarrollo Sostenible

Iraunkorrerako Estrategiaren baitan, Bizkaia 21 2011-2016 Programaren ildo estrategikoetan bat da "Bizkaian uraren kudeaketa egoki bat sustatzea", uraren erabilera iraunkor bat sustatze aldera esparru guztietan.

Hortaz, arlo horretako plangintza egitea eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan hornidura garatzeko tresna bat edukitzea, hala nola, hornidurarako LEP, zerbitzu publiko erabakigarria da; horren bidez, zer arazo dauden jakin eta egin beharreko inbertsioak behar bezala planifikatu ahalko ditugu, kontuan hartuta Urdaibaiko Biosfera Erreserba eremu oso garrantzitsua dela, eta ur edangarriaren hornidura herritarrentzako alderdi erabakigarria dela.

HAMAHIRUGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak landutako plangintza hidrologikoko agiriez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak azterketaren xede den inguruaren hornidurari buruzko informazioa dauka, bai eta horren inguruan egindako zenbait azterlan eta proiektu ere, eta, bestalde, Busturialdeko Ur Partzuergoak du hornidura-zerbitzu horren ustiapenaren gaineko eskumena;

de la Diputación Foral de Bizkaia Programa Bizkaia 21 2011-2016 tiene como línea estratégica "Promover una buena gestión del agua en Bizkaia " con el objetivo de promover un uso sostenible del agua en todos los ámbitos.

Este objetivo convierte la planificación y el disponer de un instrumento de desarrollo del abastecimiento en el ámbito de reserva de la Biosfera de Urdaibai como es el PAT de Abastecimiento, en un servicio público decisivo que permite la detección de los problemas existentes y una adecuada planificación de las inversiones a desarrollar en un ámbito tan importante como es la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y en un aspecto tan decisivo para la ciudadanía como es el abastecimiento de agua potable.

DÉCIMOTERCERO.- Además de los documentos de planificación hidrológica elaborados por la Agencia Vasca del Agua, la Diputación Foral de Bizkaia dispone de información del abastecimiento de la zona objeto del estudio, así como diversos estudios y proyectos elaborados al respecto y el Consorcio de Aguas de Busturialdea, es el ente competente y explotador del precitado servicio de

hortaz, planaren lanketan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeek.

HAMALAU GARRENA.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen, abenduaren 3koaren, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duenaren, Bosgarren Xedapen Gehigarriak lankidetzaz hitzarmenak ezartzeko ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari, *helburua edozein delarik ere, (...) nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko administrazio orokorrarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, dagozkion erakunde autonomiadunekin, sozietate publikoekin eta, izaera juridikoa edozein dutela ere, helburua gizarte zerbitzuen arloa duten erakundeekin.*

Era berean, Bosgarren Xedapen Gehigarri horren 2. puntuak honakoa adierazten du: *Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomiadunek lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota herri-administrazioen kontratuak*

abastecimiento, de forma que ambas instituciones se comprometen a participar de forma activa de la elaboración del Plan.

DÉCIMOCUARTO.- La Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, faculta a la Diputación Foral de Bizkaia para celebrar convenios de colaboración cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración General del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales, los correspondientes organismos autónomos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

Así mismo, el punto 2 de dicha Disposición Adicional Quinta, señala que la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración con personas físicas o jurídicas, sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté entre los comprendidos en la legislación reguladora de los contratos de

arautzen dituen legerian edo
administrazio-arau berezietan.

las Administraciones Públicas, o en normas
administrativas especiales.

Esandakoagatik guztiagatik, Uraren
Euskal Agentziak, Bizkaiko Foru Aldundiak
eta Busturialdeko Ur Partzuergoak
honako **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau
izenpetzen dute, honako klausula hauei
jarraiki:

Por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del
Agua, la Diputación Foral de Bizkaia y el
Consorcio de Aguas de Busturialdea,
proceden a la formalización del presente
CONVENIO DE COLABORACIÓN, con
arreglo a las siguientes;

KLAUSULAK:

CLAÚSULAS:

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.

Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal
Agentziak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta
Busturialdeko Ur Partzuergoak Urdaibai
Biosfera Erreserbako Horniduraren
Lurralde Ekintzako Plana lantzen eta
izapidetzen laguntzeko hartzen duten
konpromisoa gauzatzeko baldintzak
arautzea, jarraian azaltzen diren
klausulen arabera.

Es objeto del presente Convenio regular las
condiciones en las que la Agencia Vasca
del Agua, la Diputación Foral de Bizkaia y el
Consorcio de Aguas de Busturialdea se
comprometen a colaborar en la
elaboración y tramitación del Plan de
Acción Territorial de Abastecimiento de la
Reserva de la Biosfera de Urdaibai, en los
términos establecidos en las cláusulas
siguientes.

BIGARRENA.- LANAK ZEHAZTEA.

SEGUNDA.- DEFINICIÓN DE TRABAJOS.

Urdaibaiko Horniduraren Lurralde
Ekintzako Planak bat etorri beharko du
Urdaibai Biosfera Erreserbaren
Erabilerarako eta Kudeaketarako

El Plan de Acción Territorial de
Abastecimiento de Urdaibai deberá
cumplir las determinaciones del Plan Rector
de Uso y Gestión de la Reserva de la

Biosfera de Urdabai y deberá contener como mínimo las siguientes determinaciones (art. 40 del PRUG):

1. Planes de manejo y programas integrados previstos en el Plan Rector y cuantos otros resulten necesarios con arreglo al mismo.
2. Calificación como suelo de sistemas de los terrenos a ocupar por las obras y las áreas de protección provisional.
3. Definición de las obras con el grado de precisión de anteproyecto, al objeto de concretar las características técnicas elegidas, determinadas en los planos de trazado que delimiten los terrenos a ocupar por las obras así como los integrantes de las áreas provisionales de protección y concretar el resto de las determinaciones de su calificación pormenorizada.
4. Normas para delimitar las zonas definidas de protección de las infraestructuras una vez realizadas estas. Las Zonas definidas de protección permitirán cubrir las futuras y previsibles necesidades de ampliación y mejora, garantizando la

funtzionaltasuna eta inguru naturalarekiko egokitzea bermatuz, eta ez dute inoiz ere hesi efekturik sortuko lurraldean.

5. Inguru gaineko Eraginaren Ebaluazioa.

6. Ikerketa ekonomikoa edota finantzakoa eta etapan plana.

funcionalidad de la infraestructura y su adaptación al medio natural, no produciendo bajo ningún concepto el efecto barrera en el territorio.

5. Evaluación de Impacto Ambiental.

6. Estudio económico-financiero y plan de etapas.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK.

TERCERA.- COMPROMISOS ADQUIRIDOS POR LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

Honako eginkizun hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziak:

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Urdaibai Biosfera Erreserbako Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana idazteko lanak kontratatzea, hasierako dokumentuari egin beharreko aldaketa eta osagarri guztiak barne, baldin eta horrelakorik behar bada gerora egingo diren administrazio- eta ingurumen-izapideen ondorioz, aurreko klausulan jasotako zehaztapenen arabera.

a) Contratar los trabajos de redacción del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, incluyendo todas las modificaciones o complementos que resulten necesarios respecto del documento inicial con motivo de la posterior tramitación administrativa y ambiental que se llevará a cabo, con las determinaciones contenidas en la cláusula precedente.

b) Aipatutako lanak zuzentzea,

b) Dirigir, con la colaboración del

Busturialdeko Ur Partzuergoaren laguntzarekin, zazpigarren klausulan zehaztutako batzorde teknikoaren baitan, eta lan horiek gainbegiratu, horien jarraipena egin eta behar den informazioa ematea.

c) Urdaibai Biosfera Erreserbako Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana idazteko lanen kostu eraginkorraren %65 finantzatzea.

Uraren Euskal Agentziaren ekarpen gisa adostutako zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA EUROKOA (130.000 €) da, eta honela osatzen da: 2014rako ordainketa-kreditu bat, HIRUROGEITA BOST MILA EUROKOA (65.000 €), eta 2015erako konpromiso-kreditu bat, HIRUROGEITA BOST MILA EUROKOA (65.000 €). Horiek agentziaren aurrekontuen kargura finantzatuko dira, 62900091 kontura egotzita.

d) Horniduraren Lurralde Ekintzako Planaren esparruan hornidurari buruz daukan dokumentazio guztia ematea, lanak gauzatzeko interesgarri izan litekeena.

e) Urdaibaiko Horniduraren Lurralde

Consortio de Aguas de Busturialdea en el seno de la comisión técnica definida en la cláusula séptima, la ejecución de los mencionados trabajos, supervisándolos y realizando su seguimiento, así como aportando la información necesaria.

c) Financiar el 65 % del coste efectivo de los trabajos de redacción del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

El importe previsto como aportación que compromete la Agencia Vasca del Agua, es de CIENTO TREINTA MIL EUROS (130.000 €), consistentes en un crédito de pago para el año 2014 de SESENTA Y CINCO MIL EUROS (65.000 €) y un crédito de compromiso para el año 2015 de SESENTA Y CINCO MIL EUROS (65.000 €), que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia, imputable a la cuenta 62900091.

d) Aportar cuanta documentación disponga sobre el abastecimiento en el ámbito del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento a redactar que pudiera ser de interes para el desarrollo de los trabajos.

e) Llevar a cabo el trámite de evaluación

Ekintzako Planaren ingurumen-eraginaren ebaluazioa gauzatzea hori aginduzkoa bada indarrean dagoen ingurumen-araudiaren arabera.

f) Azterlanaren ondorioak kontuan hartuta beharrezkoa izango balitz, egun daudenak ez diren eta lurralde-ekintzako planean zehaztu diren aprobetxamendu hidrikoko beste iturri baten edo batzuen erabilgarritasuna baliozkotzeko emakiden kudeaketan esku hartzea egoera bakoitzean eskumendun diren agintarien aurrean.

LAUGARRENA.- BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK.

Honako eginkizun hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Urdaibaiko hornidura hobetzeari buruzko proiektuei buruz daukan informazioa ematea, bai eta Urdaibaiko hornidurari buruzkoa den eta lanak gauzatzeko

interesarri izan daitekeen informazioa ere.

de impacto ambiental del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de Urdaibai en caso de que éste resulte preceptivo en aplicación de la normativa medio ambiental en vigor.

f) Si resultara necesario a la luz de las conclusiones del estudio, intervenir en la gestión ante las autoridades competentes en cada caso, de las concesiones oportunas que permitan validar la disponibilidad de la(s) fuente(s) de aprovechamiento hídrico diferentes de los actuales y que se hayan definido en el Plan de Acción Territorial.

CUARTA.- COMPROMISOS ADQUIRIDOS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

a) Aportar la información relativa a los proyectos de mejora del abastecimiento de Urdaibai promovidos por la Diputación Foral de Bizkaia de que dispone, así como aquella información relativa al abastecimiento de Urdaibai que pueda ser de interés para el desarrollo de los trabajos.

b) Urdaibai Biosfera Erreserbako Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana idazteko lanen kostu eraginkorraren %35 finantzatzea, jarraian adierazten diren aurrekontu-sailen kargura eta honako zenbateko hauekin:

➤ 2014. urtea: 35.000 euro.
0902/440101/42900/2013/0111
aurrekontu-sailaren kontura.

➤ 2015. urtea: 35.000 euro.
0902/440101/42900/2013/0111
aurrekontu-sailaren kontura.

b) Financiar el 35% del coste efectivo de los trabajos de redacción del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, con las siguientes cuantías con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

➤ Año 2014: 35.000 euros. Con cargo a la partida presupuestaria 0902/440101/42900/2013/0111.

➤ Año 2015: 35.000 euros. Con cargo a la partida presupuestaria 0902/440101/42900/2013/0111.

Lehen adierazitako lanek adostutako zenbatekoa gainditzen badute, gehiegizko kopuruaren %35 finantzatuko da era berean.

En el caso de que los trabajos anteriormente identificados excediesen del importe comprometido, estos serán igualmente financiados en el porcentaje del 35 % sobre el coste efectivo de su exceso.



BOSGARRENA.- BUSTURIALDEKO UR- PARTZUERGOAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK.

QUINTA.- COMPROMISOS ADQUIRIDOS POR EL CONSORCIO DE AGUAS DE BUSTURIALDEA.

Honako eginkizun hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Busturialdeko Ur

El Consorcio de Aguas de Busturialdea se compromete a:

Partzuergoak:



a) Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Urdaibaiko hornidura hobetzeari buruzko proiektuei buruz daukan informazioa ematea, bai eta Urdaibaiko hornidurari buruzkoa den eta lanak gauzatzeko interesgarri izan daitekeen informazioa ere.

b) Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan jardutea, hirugarren klausularen b atalean adierazten den eran, zazpigarren klausulan zehaztutako batzorde teknikoaren baitan, aipatutako lanen jarraipenean eta gainbegiraketan, eta behar den informazioa ematea zehaztutako lanak eta bigarren klausulan jasotako zehaztapenak behar bezala gauzatzeko.

c) Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidariaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera idatzitako lurralde-ekintzako plana onartzeko prozedura gauzatzea, honako izapide hauek beteko dituen:

a) Aportar la información relativa a los proyectos de mejora del abastecimiento de Urdaibai promovidos por la Diputación Foral de Bizkaia de que disponga, así como aquella información relativa al abastecimiento de Urdaibai que pueda ser de interés para el desarrollo de los trabajos.

b) Colaborar junto con la Agencia Vasca del Agua, como se contempla en el apartado b de la cláusula tercera, en el seno de la comisión técnica definida en la cláusula séptima, en el seguimiento y supervisión de la ejecución de los mencionados trabajos, así como aportando la información necesaria para la correcta consecución de los trabajos definidos y las determinaciones contenidas en la cláusula segunda.

c) Llevar a cabo el procedimiento de aprobación del Plan de Acción Territorial redactado conforme a lo establecido en el artículo 45 del Plan Rector de Uso y Gestión de Urdaibai, que se ajustará a los siguientes trámites:

Lehenengoa: Busturialdeko Ur Partzuergoak hasierako onarpena emateko proiektuari.

Primero: Aprobación inicial del proyecto por parte del Consorcio de aguas de Busturialdea.



Bigarren: Informazio publikoa hilabete batez.

Segundo: Información pública por periodo de un mes.

Hirugarrena: Urdaibaiko Patronatuaren txostena; txostena emateko eskaria egin eta hilabete batean eman beharko du.

Tercero: Informe del Patronato de Urdaibai que deberá ser emitido en el plazo de un mes desde que fuere requerido a ello.

Laugarrena: Dokumentuari hasierako onarpena eman dion organoak behin-behineko onarpena ematea.

Cuarto: Aprobación provisional por el órgano que hubiera aprobado inicialmente el documento.

Bosgarrena: Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena.

Quinto: Informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Seigarrena: Busturialdeko Ur Partzuergoak behin betiko onartzea.

Sexto: Aprobación definitiva por el Consorcio de aguas de Busturialdea.

SEIGARRENA.- LANAK FINANTZATZEA ETA ORDAINTZEA.


SEXTA.- FINANCIACIÓN Y ABONO DE LOS TRABAJOS.

1.- Agentziak kontratazioaren gastua baimendu baino lehen, lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoaren %35 berdintzeko adinako kreditua, behar izango den Bizkaiko Foru Aldundiak agentziari.

1.- Antes de la autorización del gasto de la contratación por la Agencia, la Diputación Foral de Bizkaia remitirá a la citada Agencia el certificado de la existencia del crédito presupuestario adecuado y preciso para dar cobertura al 35% del importe a que ascienda el presupuesto de licitación.

2.- Esleipen proposamena egin ondoren, eta kontratua esleitu baino lehen,

2.- Tras la formulación de la propuesta de adjudicación y con anterioridad a la



esleipen-zenbatekoaren %35 berdintzeko adjudicación del contrato, la Diputación adinako kreditua, behar bezalakoa, enbarrá a la Agencia el certificado de eskura duela ziurtatzeko agiria igorriko dio disponibilidad de crédito adecuado y aldundiak agentziari. suficiente para la cobertura del 35% del importe de adjudicación.



3.- Esleipenaren prezioan eragin 3.- Las incidencias contractuales con ekonomikoa duten kontratuko gertakariak repercusión económica sobre el precio de (hala nola, gehiegizko likidazioa, prezioak adjudicación (tales como exceso en berrikustea, zergak aldatzea) alderdietako liquidación, revisiones de precios, bakoitzak finantzatzeko ditu 3. klausularen modificación de tipos impositivos), serán c) atalean eta 4. klausularen b) atalean financiados por cada una de las partes en adierazitako ehunekoetan, betiere, los porcentajes indicados en las cláusulas alderdiek klausula horietan onartutako 3ªc) y 4ª b) en tanto no se exceda de los aurrekontu-konpromisoak gainditzen ez compromisos presupuestarios asumidos por badira. Bestela, hitzarmena aldatu las partes en las indicadas cláusulas. En otro beharko da. caso será precisa la modificación del convenio.

4.- Uraren Euskal Agentziari egingo zaizkion ekarpenak ordaindu baino lehen, horrek onartutako ziurtapenak Bizkaiko Foru Aldundiari igorriko zaizkio, eta aurrekontu-urte bakoitzeko dagokion ziurtapenaren ehunekoa ordainduko zaio erakunde horri, laugarren klausularen b) atalean ezarritako ekarpen-mugarekin.

4.- El pago de las aportaciones a la Agencia Vasca del Agua se realizará previo traslado de las certificaciones aprobadas por ésta a la Diputación Foral de Bizkaia abonándose al citado Ente la proporción de cada certificación que corresponda por la anualidad presupuestaria, con el límite de aportación establecido en la cláusula cuarta b).

Hori ordaintzeko aurkeztutako fakturekin batera, txosten bat aurkeztu beharko da,

Junto con las facturas presentadas para su abono, deberá entregarse un informe con



Horniduraren Lurralde Ekintzako Plana osatzeko lanak zer neurritan gauzatu diren azalduko duena.

el grado de desarrollo de los trabajos de elaboración del Plan de Acción Territorial de Abastecimiento.

ZAZPIGARRENA.- ZUZENDARITZAKO ETA EGIKARITZEKO BATZORDE TEKNIKOA.

1.- Hirugarren eta bosgarren klausuletako b) atalak betetze aldera, hitzarmena zuzentzeko eta egikaritzeko batzorde tekniko bat eratuko da, bi ordezkari osatutakoa; bata, Uraren Euskal Agentziarena, eta bestea, berriz, Busturialdeko Ur Partzuergoarena. Alderdiek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek bete ditzaten:


- a) Lurralde-ekintzako plana idaztean gauzatuko diren lanen jarraipena egitea.
- b) Egun Urdaibain dauden arazo hidrikoak konpontzeko kontuan hartu beharko diren aukerak aztertzea eta proposatzea.

- c) Diseinatuak irtenbideen xehetasunak eta horiek egungo

SÉPTIMA.- COMISIÓN TÉCNICA DE DIRECCIÓN Y EJECUCIÓN.

1.- Para el cumplimiento de los apartados b) de las cláusulas tercera y quinta, se constituirá una Comisión Técnica de Dirección y Ejecución del convenio compuesta por dos representantes, uno de la Agencia Vasca del Agua y otro del Consorcio de Aguas de Busturialdea, que se designarán, respectivamente, por las partes, para el desempeño de las siguientes funciones:

- a) Realizar el seguimiento de los trabajos que se desarrollen en el marco de la redacción del Plan de Acción territorial.
- b) Analizar y proponer las diversas alternativas que deban ser estudiadas para subsanar los problemas hídricos actuales que aquejan a Urdaibai.
- c) Exponer a los Ayuntamientos afectados por las determinaciones



hirigintza-plangintzan zer eragin izango dituzten azaltzea planaren eraginpean dauden udalei.

- d) Hartu-emanetan egotea Urdaibaiko Patronatuko teknikariek, LEP idazterakoan jarraitutako oinarrizko ildoen eta funtsezko jarraibideen berri emateko erakunde horri.
- e) Planaren informazio publikoko izapidean zehar aurkez ditzaketen balizko alegazioei eman beharreko erantzuna aztertzea eta proposatzea ondoren Busturialdeko Ur Partzuergoak onar dezan.
- f) Plana idazteaz arduratzen den taldeak egungo azpiegituren gainean edo egungo eta/edo etorkizuneko hornidura-iturrien gainean izan ditzakeen zalantzak argitzea.
- g) Hitzarmen honen xedek sorrarazitako edozein gai tekniko aztertzea.
- h) Aurreproiektuari dagokionean beharrezko izan daitezkeen obrak zehazten laguntzea, planaren helburuak lortze aldera.

i) Plana idazteaz arduratzen den

del plan, los pormenores de las soluciones diseñadas y su afección sobre el planeamiento urbanístico vigente.

- d) Ejercer una interlocución regular con los técnicos del Patronato de Urdaibai para dar a conocer a dicho organismo las líneas básicas y directrices esenciales seguidas durante la redacción del PAT.
- e) Estudiar y proponer para su posterior aprobación por el Consorcio de aguas de Busturialdea, la respuesta a las alegaciones que pudieran presentarse durante el trámite de información pública del plan.
- f) Resolver cualesquiera dudas que pudiera tener el equipo redactor sobre las infraestructuras actuales, como sobre las fuentes de suministro actuales y/o futuras.
- g) Estudiar y analizar cualquier cuestión técnica derivada del objeto del presente convenio.
- h) Colaborar en la definición de las obras que resulten necesarias a nivel de anteproyecto para la consecución de los objetivos del plan.

i) Colaborar activamente con el



kanpoko lan-taldeari aktiboki laguntzea. Era berean, hori gauzatzeko behar diren administrazio-baldintza berezien eta baldintza teknikoen orriak lantzen laguntzea hurbiletik.

j) Lanen bilakaera kontuan hartuta egoki irizten dituen aldaketak, hedatzeak edo eskaerak proposatzea hitzarmen honen Jarraipen Batzordeari.

k) Lanerako eta lankidetzarako ildo estrategikoak ezartzea maila teknikoan.

l) Behin betiko dokumentuaren edukien irismena eta zehaztasun-maila zehaztea.

equipo de trabajo externo encargado de la redacción del Plan. Igualmente colaborar estrechamente en la elaboración de los pliegos de condiciones administrativas particulares y técnicas necesarios para su adjudicación.

j) Proponer a la Comisión de Seguimiento del presente convenio cuantas modificaciones, ampliaciones o peticiones de cualquier índole que estimaren pertinentes a la luz del desarrollo de los trabajos.

k) Establecer las líneas estratégicas de trabajo y colaboración a nivel técnico.

l) Definir el alcance y grado de precisión de los contenidos del documento definitivo.

2.- Bi alderdietako edozeinek proposatutakoan bilduko da Batzorde Teknikoa, horien arteko adostasuna bilatuz, egin beharreko jarduerak aztertu, balioetsi eta proposatzeko. Bi alderdietako edozeinetako beste teknikari batzuek ere parte hartu ahal izango dute.

2.- A propuesta de cualquiera de las dos partes, y procurando el consenso entre ellas, la Comisión Técnica se reunirá para analizar, valorar y proponer las actuaciones a realizar, pudiendo asistir técnicos adicionales por cualquiera de las partes.

**ZORTZIGARRENA.-
JARRAIPEN-BATZORDEA.**

HITZARMENAREN

1.- Hitzarmenaren jarraipen-batzorde bat eratuko da, sei ordezkari osatuko dutena: zehazki, Uraren Euskal Agentziako bik, Ingurumen Azpiegituren Zuzendari Nagusiak eta Administrazio Koordinazioko Zerbitzuko Buruak Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta Busturialdeko Ur Partzuergoko beste bik. Hitzarmena izenpetzen duten alderdiek izendatuko dituzte horiek hurrenez hurren honako eginkizun hauek gauza ditzaten:

a) Egin beharreko izapidetak laster egitea galarazten duten oztopoak kentzen laguntzea.

b) Hitzarmen honen helburu diren jarduketak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere urte bakoitzeko kopuruak egokitu behar direnean.

Hitzarmena interpretatzeari eta gauzatzeari dagokienean sor litezkeen arazoak konpontzen ahalegintzea.

d) Hitzarmenean adostutako ekintzen

**OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL
CONVENIO.**

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del convenio compuesta por seis representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua, la Directora General de Infraestructuras Ambientales y la Jefa del Servicio de Coordinación administrativa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y otros dos del Consorcio de Aguas de Busturialdea, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

b) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades.

c) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

d) Labores de seguimiento de las acciones



jarraipena gauzatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta elkartuko da batzordea, jarduketak ondo joan daitezen behar adina bider. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak bestelakorik adosten ez badu. Kideek aho batez onartu beharko dituzte akordioak.

3.- Hitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruz hitzarmenak berak berariaz aipatzen ez dituen gaitan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

BEDERATZIGARRENA.- TITULARTASUNA.

Gauzatzen diren lanen eta jardueren ondorioz eskuratzen eta lantzen diren dokumentu guztiak Uraren Euskal Agentziarenak eta Bizkaiko Foru Aldundiarenak izango dira; halere, alderdjetako edozeinek erabili ahal

conveniadas.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo expreso diferente que pudiera adoptarse por la propia Comisión. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

LANEN NOVENA.- PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS.

La propiedad de toda la documentación que se obtenga y elabora como consecuencia de los diferentes trabajos y actividades que se realicen pertenecen a la Agencia Vasca del Agua y a la Diputación Foral de Bizkaia, sin perjuicio de



izango du dokumentua dagozkion eskumenen esparruan.

que el documentos como tal pueda ser utilizado por cualquiera de los firmantes en el marco de sus propias competencias.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta bertan xedatutakoaren mende egoteaz gainera, zuzenean edo antzekotasunagatik aplikagarri zaizkion administrazio-zuzenbideko arauen mende egongo da. Bereziki, aplikagarri zaizkio 5/2006 Foru Arauaren Bosgarren Xedapen Gehigarria, eta ekainaren 5eko 105/2001 Foru Dekretua.

2.- Hitzarmenak edo hitzarmenaren betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak hitzarmenaren jarraipen-batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz; eta, horrela ezin badira ebatzi, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 8.3. artikulua xedatutakoari

jarraituko zaio.

DÉCIMA.- NATURALEZA E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio tiene naturaleza administrativa, y se regirá además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo, que bien directamente o por analogía pudieran resultar de aplicación. En particular, resulta aplicable la Disposición Adicional Quinta de la Norma Foral 5/2006, así como lo dispuesto en el Decreto Foral 105/2001 de 5 de junio.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN UNDÉCIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL

ERAGINAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egitera edo horiek aldatzera; hitzarmenaren ondorio diren konpromisoek dakartzaten erantzukizunak hartuko dituzte beren gain, ez besterik.

2.- Izenpetzen den unetik izango ditu ondorioak eta behartuko ditu alderdiak hitzarmen honek, eta azken lana adostasunez jaso arte mantenduko da indarrean. Busturialdeko Ur Partzuergoak LEP behin betiko onartutakoan amaituko dira lan horiek, gehienez ere lau urteko epean.

HAMABIGARRENA.- AZKENTZEA.

1.- Aurreko klausulan aipatutako iraupen-aldia igarotzeagatik edo aldeek suntsiarazi egin dutelako iraungiko da hitzarmena.

2.- Aldeetako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzez hitz bete ditzala eskatzeko edo hitzarmena

CONVENIO.



1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, manteniéndose vigente hasta la recepción conforme del último de los trabajos, que culminará con la aprobación definitiva del PAT por parte del Consorcio de aguas de Busturialdea, con un límite máximo de cuatro años.

DUODÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución



suntsiaraztea eskatzeko. Hitzarmena suntsiaraziz gero, alderdiek zehaztuko dute zer baldintzatan finantzatuko eta ordainduko diren gauzatzen ari diren jarduerak, eta, hala badagokio, nola entregatuko diren.

Eta ezarritakoari jarraituz eta ezarritako horrekin ados daudelarik, bildu direnek hitzarmenaren hiru ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para financiación y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**INGURUMENeko FORU
DIPUTATUA/DIPUTADO FORAL DE MEDIO**

AMBIENTE



[Redacted signature]

**Sin./Fdo.: IOSU MADARIAGA
GARAMENDI**

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI
NAGUSIA/DIRECTOR GENERAL DE LA**

AGENCIA VASCA DEL AGUA



[Redacted signature]

Sin./Fdo.: INIGO ANSOLA KAREAGA

**BUSTURIALDEKO UR PATZUERGOKO
LEHENDAKARIA/PRESIDENTA DEL
CONSORCIO DE AGUAS DE**

BUSTURIALDEA

Busturialdeko Ur

[Redacted signature]

Sin./Fdo.: IRATXE ARRIOLA ALZOLA

